

Burutu nahi dugun proiektua katuentzat pertsonalizazio maila handia daukan arropa diseinatu eta ekoiztea da. Hauek dira ezarriko ditugun enpresaren politikak. Alde batetik, jasangarritasuna bilatuko dugu, ahalik eta kutsadura gutxien sortuz. Bestetik, bertako produktuak eta langileen zerbitzuak erabiliko ditugu, tokiko ekonomia sustatzeko. Xedea katuak asko maite dituzten pertsoneri kalitate handiko produktuak eskaintzea da, batez ere, katu batekin bakarrik bizi den jendeari. Honela, haien bakardade sentazioa murriztuko dugu. Gure epe luzeko helburua haztea eta ekoizpen ahalmena handitzea da, etekin kopuru handia lortuz, betiere jasangarritasuna mantenduz.